



JOSE ANGEL MORENO

Trafiko handia herrian barrena

Biala Orain! plataformak Zizurkilen saihebidetza egiteko premia gizarteratu du ekimen ezberdinen bitartez / 4-6



AIURRI

Amaia Oreja,
musikan egindako
ibilbideaz eta Amak
taldeaz solasean / 4-6



AIURRI

Gabone Iturrarte
andoaindarra,
makramez egindako
bitxigintzan / 10-11



ANE JALON

Egunerokotasuna
aldatu duen
koronabirusa
hizpide / 12-13



AIURRI

1994-1997 arteko
eskualdeko irudiak
jarri ditu Aiurrik
internet sarean / 20-21

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!

Edizio bateratua

Diseinu berritua

Erreportajeak

Kolaboratzaile berriak

'Gorabeherak' websaila...

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN

Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan



KOLABORAZIOAK



AMAIA MENDIZABAL EREITEN KULTUR ZERBITZUA

Itsasoko ur hartzeak

Mendi inguruko aire garbia edo itsasoko ur gatzatua osasunerako onuragarriak direla jakina da, guk dakigu gaur egun, eta gure arbasoek ere bazekiten. Zentzu horretan, Gipuzkoa zona pribilegiatu bat da eta, ondorioz, gu ere bai. XIX. mendeko medikuak ere jabetu ziren horretaz, eta horregatik, momentuko pertsonaia garrantzitsuak honantz bidaltzen zituzten osasun arazoak zituztenean. Pertsonaia horietako bat Francisco de Paula infantea izan zen, Espainiako errege zen Fernando VIIaren anaia. 1830 urtean Donostiara joan zen La Concha hondartzan urak hartzera.

Infanteak eta bere familiak egin zuten bidaiari buruz hitz egiten diguten bi testu ditugu Asteasuko artxiboan, informazio asko eskaintzen diguten bi gutun dira (sig. 270-07). Alde batetik,

"AIRE GARBIA ETA ITSASOKO UR GATZATUA ONURAGARRIAK DIRA"

Asteasuko Udalarari bidaltzen zaion gutunak dioenaren arabera, familiak egin behar zuen ibilbidearen zati bat behintzat, egin gabe zegoen eta auzolan bidez egin behar izan zuten diru falta zela eta. Horretarako, Asteasuk ordezkari bat bidali behar zuen Zestoako Sorabil baserrira, bertan ospatuko zen bileran, herri bakoitzak bidali behar zituen baliabideak adosteko. Bertan erabaki zen Asteasuk familia buru bakoitzetik peoi bat edo bi bidali behar zituela Iturriozko puntura, jarraigoa handik Villabonara joango zelako.

Esku artean dugun bigarren gutuna Udalak idatzi zuen Sorabil baserrian ospatutako bilera horren ondoren. Gutun horrek datu esanguratsuak ditu bere baitan, bertan, herria osatzen duten lau auzoetako familien izenak zerrendatzen baitira: "Bevallea"tik 20 familia izendatzen dira, "Elizmendia"tik 23, "Urpazan"dik 19 eta "Goivallea"tik 13. Familia gehienek pertsona bat bidali behar dute, baina batzuek bi bidali behar dituztela dio zerrendak, Lizola, Lizarraga edo Comporta familiak kasu.

Pertsona hauek derrigorrez joan behar zuten bidean lan egitera, bestela zigortu egingo baitzituzten "entre otras cosas a acordado que todas las cabezas de familias envíen un peon a dicho punto [de Iturrioz] el día y hora arriva indicados sin pretesto alguno, y en defecto seran castigados conforme se a acostumbrado hasta ahora". Ez dauka, beraz, zerikusi handirik, garai hartako auzolanak eta gaur egungoak.

Arestian aipatu bezala, pribilegiatuak gara gure lurralde honetan bizitzeagatik, urrutitik etorri izan da eta dator jendea gure ingurua bisitatzen. Ondorioz, gauzak horrela mantendu nahi baditugu eta gure ondorengoak ere pribilegiatu izaten jarraitzea nahi badugu, gure mendiak eta itsasoak zaintzea gure esku dago.

"GURE MENDIAK ETA ITSASOAK ZAINTEA GURE ESKU DAGO"

AIURRI
BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

EGOITZA:
Arantzibia plaza, 4-5. Andoain.
Tel.: 943 300 732.

Erredakzioa:
Ainhoa Gil, Ainhoa Arozana,
Jon Ander Ubeda, Xabier Lasa,
Olatz Lasa, Mikel Arberas.

Diseinua: Goiena.

Maketazioa:
Maddi Trutxuelo.
@: diseinua@aiurri.eus
Edizio jarraia: www.aiurri.eus

Publizitate arduraduna:
Fernanda Irazu.
@: publizitatea@aiurri.eus
605 718 041

Administrazioa, harpidetzak:
Garbiñe Ugarteandia.

@: idazkaritza@aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-202/94.

ISSN: 1134-0614.

Tirada: 1.650 ale.

Inprimategia:
Antza inprimategia.

Banaketa:
Aiurri ordainpeko banaketa bidez banatzen da.

Banatzaileak:
Andoain: Mikel Arregi.
Amasa-Villabona, Aduna, Zizurkil,
Asteasu eta Larraul: Gorka Novillo.

Urteko harpidetza saria: 39€.
Kioskoan salgai: 2€, ale bakoitza.
Andoain: Enaitza, Stop.
Amasa-Villabona: Basajaun, Amasa
kafetegia. Zizurkil: Ogi-zuri.

Udalerrien babesarekin argitaratzen da



Bikaintasun ziurtagiria



Laguntzaileak:

TOKIKOM

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



“Oso ondo hartu gaituzte, maitatuak sentitu gara eta ederra da hori”

AMAIA OREJA UNANUE TRIKITILARIA, AMAK TALDEKO KIDEA

Sortu berria da Amak taldea eta harrera beroa izan dute orain arteko bidean. Gustura aritu nahi dute, ondo pasaz eta ondo pasa araziz. Helburu horrekin dihardute saioz saio

AINHOA AROZENA ANDOAIN

Trikitixa eta panderoa gainean hartuta, plazaz plaza ibili ziren Amaia Oreja, Kristina Solano, Maixa Lizarribar eta Alaitz Telletxea 90eko hamarkadan, bakoitza bere taldearekin. Ibilbide luze eta oparoa egin ondoren, atsedena hartu zuten eta, urteak geroago, laukotea elkartu eta Amak egitasmoa sortu berri dute. Pozarren daude, patxadaz eta gustura hartu dutelako berriz ere jendaurre-rako itzulera. "Egiten duguna gustatu egiten zaigu. Gozatze-ko egiten dugu", horixe euren leloa. Amaia Oreja Unanue Andoaingo trikitilari eta Amak taldeko kideak hartu du hitza. **Esperogabeen sortutako taldea da Amak. Azalduko al diguzu abiapuntua?**

Oñatiko jaialdi batean parte hartzeko elkartu ginen Kristina Solano, Maixa Lizarribar, Alaitz Telletxea eta laurok. Gerora, batetik eta bestetik jendea deika hasi zitzaigun eta, gustura sentitu ginenez, aurrera jarraitzea erabaki genuen.

Bai, erabat esperogabeen sortu da taldea. Jaialdi hartan parte hartu ondorenean, nola-bait, jendearen eskaeratik. Denboraldi batean plazetatik kanpora egon arren, lauroi asko gustatzen zaigu giro hori eta oso gustura gabilta. Ederki moldatzen gara, gainera, gure artean eta asko laguntzen du horrek ere. Hori bai, patxadaz hartu dugu, bai baitakigu zer nahi dugun eta zer ez.



Amaia Oreja Unanue, Andoaianen. AIURRI

Musikak batzen zaituzte eta baita emakume eta amak izateak ere. Hortik taldearen izena...

Hala da, bai. Jaialdietan oso ohikoa da trikitilarien izena, izen-abizenekin osorik jartzea,

baina gure kasuan luzeegi geratuko zenez, izen motzagoren bat jartzea pentsatu genuen. Eta hala, izenak aukeratzen hasi ginenean, Maixa talde-kidea, gure izenen inizialak ba-

tuta, Amak osatzen zela konturatu zen. Laurok amak ere bagarenez, taldeari jartzeko izen sendoa iruditu zitzaigun. **Ederki ezagutzen dituzue plazak laurok ere. 90eko hamarkadan ekin zenioten bideari. Oihartzun luzea izan duen bideari...**

Kristina Solano eta biok, Kristina eta Amaia bezala hasi ginen hasiera batean. Diskoa atera genuenean, M-n Ezten bezala jarraitu genuen aurrera. Maixa eta Ixiarrek ibilbide luzea egin zuten. Lau disko kaleratu zituzten. Esan beharrik ez, Alaitz eta Maiderrek ere ibilbide oparoa egin zutelara.

Gaur oraindik, 20 urte pasa eta gero, kantu haietako asko entzuten da kalean eta arraroa egiten zaigu. Baina bai, hor daude. Kantu maiteak direlako, zeozer esaten dutelako edo juergarako balio dutelako..., arrazoia jakin ez arren, hor dabilta eta poza ematen digu.

Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider, M-n Ezten. Trikitixa eta panderoa hartuta, plazetan emanaldiak eskaintzen emakume aitzindariak izan zineten...

Jarraian etorri ginen guztiak. Ordura arte baziren emakume trikitilariak, baina ez ziren plazan aritzen.

Nik ez dut sekula zailtasunik izan, baina ezagutzen ditut etxean bertan trikitixa ikasi nahi eta zailtasunik izan zituzten emakumeak, trikitixa gizonetzkoen mundua zelako orduan.

Kristinak eta biok askotan hitz egin izan dugu gai horretaz. Trikitixa ikasi nahi genuelako ikasi genuen guk eta oholtza gainean ez dugu sekula genero aldetik zailtasunik izan. Oso ondo hartu gaituzte beti, naturaltasun osoz.

Trikiti-giroari esker ezagutu dugu Euskal Herria eta zortea izan dugu horretan. Trikitixak txoko txiki asko ezagutzeko aukera eman baitigu, plazaz plaza eta gertutik. Eta GPSrik gabe, galdetuz iritsi izan gara askotan.



Amak taldeko Amaia Oreja, Kristina Solano, Alaitz Tellexea eta Maixa Lizarribar, emanaldi betean. AMAK

Baina beste plaza mota bat aukeratu duzue oraingoan...

Plaza ezberdina hartu dugu. Lehen hiru ordu eta erdiko erromeria-saioak eskaintzen genituen, gauerditik aurrera normalean. Gau-giroko ordu-tegi txikietan aritzen ginen. Oraingo planteamendua oso bestelakoa da. Hasteko, ordu-beteren inguruko saioak izaten dira. Dantzarako erromeriak baino, ikuskizunak dira. Patxada osoz eskaintzen ditugu saioak, gozatuz eta bertaratuekin harremana bultzatuz. **Lau ahots, lau pandero, lau trikitixa...**

Bai, lehen musikariak ondoan genituela joaten ginen plaketara: bateria, baxua, gitarra... Orain laurok gaude, soil-soilik: lau trikitixa, lau pandero, lau peñaparda eta lau ahots. Listo. Horrekin abiatzen gara.

Orain artean behintzat, peñaparda ez da oso musika-tresna ezaguna gure artean. Zer da, zehazki? Non du jatorria?

Salamancako musika-tresna tradizionala da. Larruzkoa da eta egur zati batekin jotzen da. Maixa taldekideak ezagutzen zuen. Ikasleekin jotzen zuen taldean, zeozer ezberdina lantzeagatik. Entsegu batera ekarri, proba egin eta asko gustatu zitzaigun. Ederra da hari ematea, deskargatzeko balio du eta, laurok batera hasitakoan, sendotasuna hartzen du, gainera. Deskubrimendu polita izan da.

Egitasmo honi begira ikasi dugu peñaparda jotzen. Simple jotzen dugu, baina oso gustura. Oso ohituta gaude panderoarekin erritmoa markatzen eta, azken finean, beste mugimendu batzuekin, baina gauza bera egiten dugu peñapardarekin ere.

Ahotsa, pandero edo peñapardaz hutsik lagunduta eskaintzen duzue hainbat kantu. Apustu berri-tzailea erabat!

Berria da, bai. Orain artean ez dago halakorik. Panderoa, esaterako, trikitixa laguntzeko

jo izan dugu orain artean beti, baina orain, ahotsez lagunduta, hutsean jotzen dugu. Pozik gaude, oso harrera onaz izaten ari garelako. Egia esan, gu ikustera etortzen direnak giro horren zaleak dira. Publiko jakin batentzat aritzen gara: trikiti-giroko jendearentzat.

Oso ondo hartu gaituzte, maitatuak sentitu gara eta ederra da hori. Oso eskertuta gaude.

Nola moldatu zarete erreperitorioa osatzeko?

Disko desberdinetako kantuen nahasketak egin ditugu. Demagun, porrusalda ezberdinak hartu, nahastu eta moldatu egin ditugu, geurera ekarriz. Kantu berriak ere osatu ditugu, baina gutxi; laurok elkartu eta entseguak egiteko tarteak topatzea ez baita erraza.

Gure kantuez gain, gustatzen zaizkigun euskal abeslarien kantuak hartu eta geureratu egin ditugu: adibidez, Izarorena, Zea Maysena, Imanol Urkizurena... Erre-

Kate motzean

• Trikitixa ez den beste musika estiloa: Asko.

Denetarik entzuten dut, mugarik gabe. Beno, reggeatoirik ez. Ez dut batere gustuko. Baina gazteen artean horixe dago indarrean. Bereganatzen dutena gustatzen zaie.

• Trikitixa, panderoa eta peñaparda ez den beste musika-tresna: Pianoa,

biolina edo gitarra asko gustatzen zaizkit. Ondo jotako edozien musika-tresna.

• Gogoko plaza:

Zaila da esatea; bat esanda, asko kanpoan uzten direlako. Baina Baliarrain maite horietako bat da. Herri txiki-txikia izanagatik, landutako festak antolatzen dituzte eta oso giro polita sortzen da.

• Gustura arituko zinatekeen lekua:

Areto txikietan bereziki. Goxotasuna eskaintzen dute areto txikiek eta goxotasunean giro intimoagoa sortzen da.

Zabala
Ordukari Bitxitegia



Kale Nagusia, 14
☎ 943 593 745 Andoain

Gudari enparantza, 5
☎ 943 332 341 Hernani

LOTUS

JAGUAR

TISSOT

VICEROY

SEIKO

haztegiak

→ pertorioa aldatuz joango gara, baina ez planteamendua. Esan bezala, ordubeteren bueltako ikuskizunak eskaini nahi ditugu. Ez dugu erromeriarik emango.

Argi daukagu zer nahi dugun eta garrantzitsua da hori. Erromeria garaian gazteak ginen, oso libreak, ez geneukan bes-telako ardurarik... Etortzen zen guztia hartu egiten genuen eta hori geneukan normaltatzat. Orain desberdina da; ahal de-nean aurrera, baina ezin de-nean ezezkoa esaten dugu. Lauron artean garbi daukagu ezezkoa esan dezakegula. Ez dugu segida-segidan emanal-dirik eskaini nahi. Egin behar duguna gustura egin nahi dugu. Horixe da gure helburua, eta, noski, baita ondo pasatzea eta pasa araztea ere.

Gertuko giroa eta publikoarekin komunikazioa bilatu ez ezik, aurkitu ere egiten duzue emanaldietan...

Saioa ez dugu eskaintzen dugunarekin soilik bukatu nahi. Kristina taldekidea ikaragarri 'xalada' dugu eta izugarritzko artea dauka entzuleekin konektatzeko. Asko eskertzen dut nik hori eta entzuleek ere baietz uste dut. Komunikazioa edukitzea bilatzen dugu, ez gurea egin eta alde egitea. Saltsa hori gustatzen zaigu eta hori erromeria garaian ikasi genuen. Orduan ere publikoaren arabera moldatzen genituen saioak.

Oraingo erreperitorioa itxia da, baina publikoarekin jolastea gustatzen zaigu.

Trikitixa, musika-tresna tradizionala izanagatik, azken urteetan argi erakutsi duzue berritzaile ere izan daitekeela...

Trikitixa denera molda daitekeela esaten dut beti. Era guz-



Amaia Oreja Ereñotzuko saioan, peñaparda eskuan. AIURRI

Maurizia panderojolea gogoan

Amak taldeko kideek, Zeberio (Bizkaia) Maurizia Aldeiturriaga panderojole ezagunari omenaldia egiten diote ikuskizun bakoitzean. "Emanaldi guztiak haren grabazio batekin hasten ditugu, hark abestutako hiru bertso jarrita sartzen gara taula gainera. Bukaeran, berriz, guk abesten ditugu hiru bertso horiek. Bestalde, bere irudia duen pandero handi bat jartzen dugu taularen gainean, erdi-erdian".

tietako trikitilariak ditugu: tradizionalak, berrikuntzak egin eta DJekin jotzen dutenak... Erabat moldagarria da. Abaniko zabala dago trikitixaren barruan.

Gazteengan ere badu arrakastarik. Trikitixa eta pandero eskolak ikasle beteta daude...

Bai. Kristina eta Maixa taldekideak, esaterako, haur eta gaztetxoek trikitixa eta pandero irakasleak dira eta ikasle mordoa dute. Nik trikitixa-den-

da batean egiten dut lan eta, badakit, herri gehienetan trikitixa eta pandero irakasle bat badagoela eta lanez gainezka egoten dela, gainera. Trikitixak ikasle asko biltzen du.

Egun, ikasle gehienak neskak dira, portzentaje nagusia. Beste kontu bat da zenbatek egingo duen plazarako jauzia gerora.

Ikasle ugari etortzen da gure emanaldietara, baina ez ikasleak bakarrik; baita haien guraso edota aitona-amonak ere. Belaunaldi guztietako kideak. Egiten dugunak ez dauka adinik, entzuteko erraza da denentzat.

Amak egitasmoaz gain, beraz, egunerokoan ere trikitixarekin lotuta zabilta...

Bai, Lasarteko Tirikitrauki dendan egiten dut lan. 1998an nagusiak zabaldu zuenetik, 21 urte egin ditugu jada bertan. Trikitixak eta panderoak saltzen ditugu batik bat. Nire kasuan, bide beretik doaz zaletasuna eta baita lana ere.

Noiz ekin zenion zuk trikitixa eta panderoa jotzen ikasteari?

10-11 urte izango nituen. Trikitixa jotzen hasi nintzen lehenengo. Ixiar ahizpa, -Maixa eta Ixiarreko Ixiar-, niri laguntzeko hasi zen panderoa jotzen ikasten. Gero, Maixak Txapelketa Nagusian parte hartzeko panderojolea behar zuela eta, Maixarekin hasi zen. Oso gaztetxoa nintzen ni orduan. Halaxe sortu zen Maixa eta Ixiar; niri laguntzeagatik ahizpa panderoa jotzen hasita.

Zein asmo du Amak taldeak aurrera begira? Ba al duzue helburu zehatzen bat?

Momentuz, pausoz pauso goaz aurrera. Oso polita litzateke, adibidez, diskoa grabatzea, gustatuko litzaiguke, baina horrek alde aurretik lan handia eskatzen du eta entsegue-tarako zein aukera daukagun ikusita, lasaitasunez hartuko dugu. Iraun behar duena iraungo du taldeak eta ekarri behar duena ekarriko du, alde aurretik ezer pentsatu gabe. Momentuaz gozatu nahi dugu eta oso gustura sentitzen gara saioetan giro polita sortzen denean. Ondorengoa denborak esango du.

Noiz eta non eskainiko dituzue hurrengo saioak?

(Koronabirusa saihesteko, martxoaren 24an Lazkaon eskaini behar zuten emanaldia bertan behera utzi zuten).

Gauzak ondo bidean, maiatzaren 23an Zumarragan arituko gara eta Larrabetzun 24an. Horiexek data gertukoak.

SAHATSA
Belar-denda eta dietetika zentrua

**KONTSULTA
NATURISTA**

Kale Berria, 50 - Villabona
Tel.: 943 694 279



OLAIA ZAPIRAIN | ILUSTRAZIOA

Zizurkilgo trafikoari irtenbidea emateko beharra

Trafiko handia pasatzen da egunero Zizurkilen barrena. Neurketen arabera, 10.000 ibilgailuk zeharkatzen dute Erniobidea eta Bulandegi bidea, egunero-egunero. Horietako asko, gainera, kamioi handiak dira. Egoerak kezkatuta, Biala Orain! plataforma sortu dute herritarrek

AINHOA GIL ZIZURKIL

Kamioiak, autoak, autobusak, motoak..., milaka ibilgailu pasatzen da egunero Zizurkilgo erdigunetik. Arazo hori ez

da berria, inondik ere, baina urteak aurrera, areagotzen joan da.

Nahikoa da Zizurkilgo Bulandegi bidea edo Erniobidean

bost minutuz egotea, arazoaz jabetzeko. Etengabekoa da auto eta kamioien joan-etorria. Soinu handia sorrazten dute eta baita kutsadura ere, noski.

Herritarrez gain, Asteasu aldera doazen ibilgailuak pasatzen dira Bulandegi eta Erniobidean barrena. Industria-gune handia dago Asteasun, eta horrek kamioien joan-etorri handia sorrazten du. Zizurkilgo herria zeharkatzen dute horiek guztiek, baita milaka autok ere.

Egoerarekin kezkatuta dauka zizurkildarrak aspalditik, eta urteak daramatzate irtenbideak aldarrikatzen. Foru Aldundiari dagokio errepidearen kudeaketa, eta saihezbidea egiteko proiektu bat baino gehiago izan dute mahai-gainean, baina inoiz ez da gauzatu izan.

Biala Orain! izeneko plataforma bildu dira zenbait →



Anastasio Inza, Jose Angel Moreno, Iñaki Alustiza, Rosa Gomez eta Balen Tolosa. AIURRI

→ herritar, aldarrikapenak bideratzeko asmoz.

Bide oparoa

Duela urtebete baino gehiago hasi ziren biltzen plataformako kideak. Rosa Gomez zizurkildarrak plataformaren sorrera ezagutu zuen: "Saihesbidearen aldeko sinadura bilketak eman zion hasiera plataformari. Ordurako, Bulantegi bideko bizilagunak zenbait bilera egiten ari ginen, errepideko zoruaren egoera negargarria zelako. Bilera haie-tan murgilduta geundenean jakin genuen herriko gazte talde batek sinadura-bilketa abiarazi zuela. Haiekin hitz egin genuen. Gaia lantzeko beharra bazegoela iruditzen zitzaigun guztioi ere, eta duela urtebete inguru egin genuen lehen bilera". Egun, zortzi zizurkildarrez osatuta dago Biala Orain! plataforma, eta ateak guztiz irekita dauzkate.

10.000 ibilgailu

Arazo handiak eragiten ditu trafikoak Zizurkilgo Elbarrenan. Soinu maila handia da eta ibilgailuek isurtzen dituzten gasek kutsadura sortzen dute. Egunero 10.000 ibilgailu pasatzen da bertatik, Foru Aldundiak egindako neurketen

arabera. Horietako asko eta asko, ibilgailu astunak. "Datu horrek oso argi adierazten du zenbateko arazoa dugun Zizurkilen, herria zehartzen duen trafikoaren eraginez".

Aspaldiko aldarrikapena

Asteasu, Alkiza edota Larraulera doazen ibilgailuek Zizurkil zeharkatzen dute gauregun, eta "horrek joan-etorri handia sortzen du. Trafiko hori guztia herrigunetik pasatzea arazo larria da. Badira 30 urte saihs-bidea egiteko lehen proiektua egin zela, baina ez zen gauzatu. Geroztik beste proiekturen bat ere egin dute, baina beti atzera bota izan dituzte. Bitartean, trafikoaren arazoa areagotzen joan da".

Bilera Foru Aldundian

2018an herriko gazte taldeak sustatuko sinadura bilketa hark indarra eman zion plataformari. "Sinadura asko bildu zen. Hori ikusita, talde politiko guztiekin bildu, eta

haien babesarekin, Foru Aldundian bilera eskatu genuen". Bide Azpiegituretako Foru Diputatu den Aintzane Oiarbiderekin bildu ziren. Elias Hermida, Iñaki Alustiza, Rosa Gomez, Maite eta Maria Angeles Lazkano izan ziren bilera hartan. "Batzarkidea zen orduan Maria Angeles, eta hark lotu zuen Aldundiko bilera", azaldu dute. Iñaki Alustizak ondorio garbi bat atera zuen bilera hartatik: "Aintzane Oiarbide diputatuak garbi esan zigun ez zegoela mahai gainean Zizurkilgo saihsbidea egiteko proiekturik, eta ez zutela epe laburrean horrelakorik aurreikusten, ez agintaldi honetan, ez hurrengoan ere".

Ez da lehentasuna

Proiektu handia da Zizurkilgo saihsbidea, diru asko kostako litzakeena "eta orain beste lehentasun batzuk dituztela esan ziguten, Aldundiko aurrekontuaren %80a gizarte ekintzetara bideratzen dutela

eta errepideei dagokienez, beste lehentasun batzuk daukela aitortu ziguten. Guk gurea eskatu genuen, guztiz arrazoizkoa dela sinetsita, eta horretan jarraituko dugu", azpimarratu dute.

Aldarrikapenak, kalera

Etsipenetik urrun, borrokatzeko gogoz daude zizurkildarrak. "Guk gurea aldarrikatu behar dugu. Izan ere, saihsbidearen premia handia dugu Zizurkilen", azpimarratu dute. Aldarrikapenak kalera ekartzen ari dira azken urtean. Sinadura bilketak eraman zuen gaia berriz ere herritarren ahotara eta geroztik etorri dira elkarretaratzeak, manifestazioak, banderolak, pintxo dastatzeak eta abar.

Eskualdearen babesa

Inguruko herrien babesa ere eskatu dute zizurkildarrek. "Aiztondon herri asko gara eta neurri batean, guztiei eragiten die arazo honek. Zizurkilek asko sufritzen du inguruko herri horietara doan trafikoaren eraginez. Haien laguntza ere eskertuko genuke", azaldu du Balen Tolosak. "Esate baterako, Asteasuko industrigunera doazen kamioiak gure herritik pasatzen dira, ia ezinbestean. Asteasuri aberastasuna ekartzen dio industria-guneak, baina guri ondorio kaskarrak besterik ez".

Eskualdeko Udalen artean gaia aztertu izan dutela azaldu dute plataformako kideek: "Badakigu, esaterako, Zizurkil eta Asteasuko Udalak harremanetan daudela. Beregarrian, Asteasu eta Adunako Udalek euren sinadura eta babesa eman ziguten, Foru Aldundiko bilerara eraman ahal izateko", azaldu du Rosa Gomezek. "Nolanahi ere, herrien arteko elkarlan estuagoa beharko litzatekela iruditzen zaigu", diote aho batez.

Kezkak argituz

Biala Orain! plataformako kideek sumatu dutenez, Zizur-

**ALDUNDIAK EZ DU
AURREIKUSTEN
EPE LABURREAN
BIALA EGITERIK**

**PROTESTALDIAK
ANTOLATZEN DITU
BIALA ORAIN!
PLATAFORMAK**

kilgo zenbait dendariren artean kezka sortu du saihebiderearen eskaerak. "Lasaitasunerako deia luzatu nahi dugu. Saihebiderea eskatuta, ez dugu herri-gune osoa oinezkoentzako gune bihurtzea nahi, inolaz ere. Egunen batean biala egingo balute, Bulandegi bidea eta Erniobideako errepideak bere horretan mantenduko lirateke".

Iñaki Alustizak azaldu duenez, saihebidereak ekarriko lukeen ondorio bakarra, pasera-ko trafiko hori guztia kentzea izango litzateke. "Inork Zizurkilen erosketak egin nahiko balitu, betiko errepidetik etorri besterik ez luke egin beharko", azpimarratu du Balen Tolosak. Egun, Asteara, Larraulera, Alkizara doazen ibilgailuak Zizurkildik pasatzen dira, "saihebiderea egingo balute, ez lukete herribarrutik pasa beharrik izango, baina horrek ez du esan nahi horretarako aukerarik izango ez luketenik", gaineratu du.

Herriaren aldeko lana

Plataformako kideek garbi utzi nahi izan dutenez, "gu herriaren onurarako ari gara lanean. Ez dugu Zizurkilen barrena egunero pasatzen den trafiko astuna jasaten jarraitu nahi. Kutsadura, arriskua..., horrek arduratzen gaituelako ari gara saihebiderea eskatzen, eta ez dugu inor kaltetu nahi, ez dendariak, ezta gainerako herri-kideak ere, noski".

Udalaren babesa

Legeztatze bidean dabilta orain plataformako kideak. "Elkarte gisa pauso ezberdinak eman ahal izateko, beharrezkoa da izaera juridikoa izatea. Horretan ari gara azken asteotan. Erakundeekin dugun harremana formalizatze-ko aukera eman digu legeztatzeak". Nolanahi ere, Udalarekin harreman estua dute plataformako kideak. "Errepidea ez da Udalaren esku-menekoa, baina babes osoa eskaini digute. Gainera, oso



Trafiko astuna jasaten du, egunero-egunero, Bulandegi bidea. AIURRI

pozik gaude Udalean ordezkari-za duten alderdi guztiek eskaini digutela euren babesa. Antolatzen ditugun ekitaldietara etortzen dira eta hori eskertzekoa da. Indar handia ematen du kolore guztietako alderdien babesa izateak".

Herritarrek

Herritarren babesa ere eskertu egin dute plataformako kideak. "Orain arte egin ditugun ekitaldietan jende asko elkartu izan gara. Lehen manifestazioa, esaterako, bero ikaragarriarekin egin genuen. Hori kontuan hartuta, harritzekoa izan zen gerturatu zen jende kopurua". Horrez gain, "lanerako gogoia ere erakutsi dute zizurkildarrek. Pintxo-jatea egin genuenean, asko eta asko gerturatu zen tortillak ekartzera. Ikaragarri eskertzen dugu hori".

Elkarretaratzeak

Bia-ster behin, Bulandegi bidea eta Erniobidea arteko biribil-gunean egiten dute elkarretaratzea. "Indarra egiteko modua da guretzat hori. Trafikoa moztu-ten dugu eta horrekin eragin zuzena du errepideetan. Orduerdiz ixten dugu biribil-gunea", azaldu du Balen Tolosak.



Biala eskatzeko banderolak, Bulandegi bideko balkoietan. AIURRI

Banderolak balkoietan

Bialaren aldeko banderolak ere atera zituzten plataformako kideak. "Ez genuen arriskatu nahi izan, eta banderola gutxi egin genituen hasieran. Berehala agortu ziren. Festa txiki bat ere antolatu genuen banderolak saltzeko, baina ordurako, ia gehienak saldu genituen. Oso harrera ona izan dute eta eskertuta gaude. Bulandegi bideko balkoi eta leihoak ikusi besterik ez dago izan duten harreraz jabetzeko. Ikusgarri dago auzoa", azpimarratu dute. Oraindik ere bada banderolak erosteko aukera. Horretarako, plataformako kideren batengana gerturatu besterik ez da egin behar.

Parte hartzeko gonbita

Azken boladan maiz elkartzen dira plataformako kideak. Momentuz, apirila amaierarako dute egina elkarretaratze-ko deia, eta puntualki joango dira berri ematen. "Ekaina aldera arte jarraitzeko asmoa dugu eta udan geldialdia egingo dugu. Udazkenean berriz ere ekingo diogu biala eskatzeko ekitaldiak antolatze-ari, horixe baita indarra egiteko dugun modu nagusia". Herritarrek gerturatzera gonbidatu dituzte. "Ideia berriak ongi-erriak izango dira. Herria hobetu nahi dugu eta horretan denok dugu zer esana. Gaiaren inguruko kezka duten guztiak, gertura daitezela plataformara".

"Pieza bakoitza molda dezaket, norberaren gustuko bitxia egiteko"

GABONE ITURRARTE URRUTIA #KIRIBIL_MAKRAME

Aspalditik zetorkion Gabone Iturrarte andoaindarrari esku-lanetarako zaletasuna. Kiribil marka sortu, eta makramez egindako bitxiak saltzen ditu

AINHOA GIL ANDOAIN

Ikasle garaian trebatu zen makramean Gabone Iturrarte gazte andoaindarra. Beraren tzako bitxiak egiten hasi zen, eta egun, saldu egiten ditu, Kiribil marka sortuta.

Makramezko bitxiak egiten dituzu. Noiz hasi zinen lan horiek egiten?

Betidanik gustatu izan zait eskulanetan aritzea. Umetan ere egiten nituen gauzatxoak makramez; niretzako esku-muturreko txikiak eta antzeko lanak. Aurrerago, Bartzelonan masterra ikasten ari nintzela, makramea egiteko hari bereziak aurkitu nituen, eta nire zaletasuna gehiago garatzeko aukera izan nuen. Bi pisukiderekin batera hasi nintzen, eta, geroz eta gehiago zaletzen joan nintzen. Niretzako bitxiak egiten nituen eta baita lagun eta eza-gunentzat ere.

Nola trebatu zinen makramezko bitxigintzan?

Internetez, youtubeko tutorialak jarraituz eman nituen lehen pausoak. Pixkanaka, geroz eta gauza zailagoak egiten hasi nintzen, eta nire zaletasuna ere handitzen joan zen.

Makramea egiteko haria Bartzelonan aurkitu zenuela aipatu duzu.

Berezia al da erabiltzen duzun haria?

Berezia da, bai. Kotoizko haria da, baina argizarizko geruza izaten du kanpoaldetik. Korapiloari eusteko baliagarria



Gabone Iturrarte Urrutia andoaindarrak sortu du Kiribil. AIURRI

da argizari hori eta egindako bitxiei gorputz berezia ematen die. Bestelako hariekin, korapiloak irrist egiten du eta egindako lana askatu egiten da.

Zaila al da hari mota hori lortzea?

Hemen ez dut aurkitzen. Bartzelonara joaten naizenean erosten ditut hariak, nahiago dudalako hariaren kolorea bertatik bertara ikusi. Izan ere,

internet bidez ere eros daitezke, baina oso zaila da koloreekin bete-betean asmatzea. Koloreak asko aldatzen dira pantailan edo zuzenean ikusita eta niretzat oso garrantzitsua da harien benetako kolorea zein den jakitea. Noizbait erosi izan dut internet bidez, baina ez naiz gustura geratu izan. Horregatik, askoz ere nahiago izaten dut zuzenean dendara joan, eta nire gustuko koloreak aukeratzeko. Tarteke, norbaiti eskatu izan diot Bartzelonatik hariren bat ekartzea, baina ez da ohikoa.

Eta garestiak al dira?

Ez, ez dira batere garestiak. Hari-mataza bakoitzak hiru euro pasatzoko kostua du eta metro askotakoak dira. Bitxi asko egin daiteke hari-mataza bakoitzarekin. Gainera, lagun-en artean ere askotan trukatzeko ditugu, behar ditugun koloreak elkarri eskatuz.

Zaila al da teknika ikastea?

Egia esan, ematen duena baino errazagoa da. Ez da batere zaila oinarritzeko teknika ikastea. Korapilo mota bat egiten ikasiz gero, gauza asko egin daiteke. Hortik aurrera, korapilo mota ezberdinak eta haiek erabiltzeko modu ezberdinak ikas ditzakezu, geroz eta gauza gehiago egin ahal izateko.

Zuretzako bitxiak egiten hasi zinen, baina marka ere sortu zenuen aurrerago. Kontaiguzu, nolakoa izan zen prozesu hori?

Gutxi hausnartutako erabakia izan zen. Lagunek behin baino gehiagotan aipatu izan zidaten bitxiak saltzen hasi behar nuela, baina ez nuen pauso hori ematen. Arratsalde batean, aurrera egitea erabaki nuen. Paperezko aho-zapi batean marraztu genuen marka berriaren logotipoa, eta aurrera.

Kiribil da zure marka. Nondik dator izena?

Ikasle garaitan, aspertuta nengoenean, paperean marrazkitxoak egiten hasi, eta kiribilak egiten nituen beti. Oso nirea den zerbait zela iruditzen

zitzaidan, eta markaren izena pentsatzen hasi nintzenean, Kiribil jartzea erabaki nuen. Logotipoa ere bide horretatik doa. Andoaingo lagun batek txukundu zuen logotipo hori eta oso eskertuta nago.

Sare sozialen bidez ematen duzu zure lanen berri...

Bai, Instagramen jartzen ditut egindako lanen argazkiak eta handik jasotzen ditut eskaera gehienak. Urte eta erdi daratat honetan, eta oso gustura nago jendeak egin dion harrearekin. Geroztik eta eskaera gehiago dut. Hilabete honetan, esaterako, enkargu asko jaso dut.

Ahoz ahokoak ere izango du bere eragina, noski...

Bai, zalantzarik gabe. Pixkanaka, jendea ari da Kiribil ezagutzen, elkarri esanda. Bitxiren bat ikusi eta gustatu zaielako iritsi dira asko niregana eta oso pozgarria da hori niretzat.

Norberaren gustuko bitxiak egin al ditzakezu?

Bai, egiten ditudan lan guztiak erakusgai jartzen ditut sare sozialetan, eta bezeroak nahi adina molda dezake eskaera. Koloreak, formak, tamainak..., ahal dudana neurrian, pieza bakoitza molda dezaket, norberaren gustuko bitxia egiteko. Batzuetan frogatzen dut gehiago egin behar izaten dut nahi dudana emaitza lortzeko, baina normalean ez zait gehiegi kostatzen eskaeratarako moldatzea.



Instagram bidez saltzen ditut bitxiak Gabone Iturrartek. AIURRI

Zenbat denbora eskaintzen diozu makrameari?

Bolada batzuetan gehixeago, bestetan gutxiago..., baina egia da oso-oso gustura aritzen naizela. Makramearekin hasten naizenean, konturatu ere egingabe joaten zaizkit orduak. Musika jarrita aritzen naiz askotan, gustura. Etetik kanpora egiteko modukoa ere bada makramea eta, udan, hondartzara edo errekarara joandakoan, hariak eramaten ditut.

Egiten ari naizen piezaren arabera ere asko alda daiteke eskaini behar diodan denbora. Bitxi batzuk oso erraz egiten diren bezala, denbora gehiago eta kontzentrazio handiagoa eskatzen dute beste batzuk.

"INSTAGRAM BIDEZ ZABALTZEN DITUT NIRE LANEN ARGAZKIAK"

Zuregana jotzen duten bezeroek garbi izaten al dute nolako bitxia nahi duten?

Orokorrean, bai. Argi izaten dute zein modelo nahi duten eta zein koloretakoa. Badago, hala ere, oso irekia uzten duenik ere. Kasu horietan, nire esku uzten dute zer egin, eta hori ere gustura hartzen dut. **Nondik hartzen dituzu bitxiak egiteko ideiak?**

Interneten begiratzea gustatzen zait. Askok ikasten da besteek egindako lanetatik. Ikusitakoak oinarri hartuta, nire erara moldatzen ditut. Nire ukitua ematea gustatzen zait.

Eskuartera iristen zaizkidan edo norbaiti ikusten dizkiodan piezetan oinarritzea ere gustatzen zait.

"KONTURATU GABE JOATEN ZAIZKIT ORDUAK MAKrameAREKIN"

Ba al duzu bereziki gustuko duzun piezaren bat?

Ez da erraza bakar bat aipatzea. Askok gustatzen zait, esaterako, Txilen erositako harritxo batekin egin nuen lepokoa. Antzeko bat eduki nuen aurrez, eta galdu egin nuen. Txilen harri hori aurkitu nuenean, frogatzen erabaki nuen. Nahi nuen emaitza lortu nuenean, sekulako poza eman zidan. Horrelakoetan, behin baino gehiagotan egin eta desegiten ditut lanak, nahi dudana pieza lortu arte.

Bitxiak egiten ditut gehienbat, baina bestelakoak ere egiten ditut. Giltzatarako asko egin izan dut, adibidez, eta baita gerrikoren bat ere.

Denda fisikoren batean aurki al daitezke zure bitxiak?

Momentuz, Baliarraingo Zarzati jatetxean ditut jarrita. Handik ere eskaera batzuk iristen ari zaizkit azken bolada honetan. Etorkizunera begira, nolana ere, ez dut baztertzen denda gehiagotan jartzea edota azokatarara joaten hastea ere. Ikasketaz biologoa naiz, baina nire espezialitatean lana aurkitzea ez da erraza. Bitartean, oso gustura ari naiz makramearekin.

Etorkizunari begira, zein da zure asmoa?

Makramearekin jarraitzeko asmoa dut. Makromakrameari heltzeko gogoia ere badut, pieza handiagoak egin ahal izateko; hormetan zintzilikatze apaingarriak, lorontziak jartzekoak, eta abar.



**LEIZARAN
INSTITUTUA**

- **DBH: D ereduari**
- **BATXILERGOAK:** Zientifikoa, Humanistikoa, A eta D ereduari
- **GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:** Gizarte integrazioa A eta D ereduari



Plazaola, 23 - 20140 Andoain
Tel.: 943 300 078 - Faxa: 943 300 578
012740aa@hezkuntza.net - www.leizaran.net



Villabonako Malkar plaza eta Kale Berriko irudia, martxoaren 16ko goizean. AIURRI

Guztiok batera, koronabirusaren aurrean

Koronabirusa saihesteko hartu beharreko neurrien artean, eskuak maiz garbitzea edota ingurukoekin gutxieneko metro bateko distantzia errespetatzea. Jarraian hartu beharreko neurri zehatzen berri. Era berean, berrogeialdian etxean egoteko jarrera aktibo eta positiboari eusteko deia

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

Koronabirusa. Horixe azken aste eta erdian gure artean gehien entzun den hitza, besterik entzun bada behintzat. Duela bi hilabete pasatxo Covid 19 birusa Txinan sortu bazen, pixkanaka hedatuz joan da eta txoko askotara iritsi da dagoeneko, tartean Euskal Herrira. Arabara batez ere, baina pixkanaka, baita gainerrako lurraldeetara ere.

Aditu eta agintariekin lasaitasunerako deia luzatu dute. Lasaitasunerako eta kutsadura saihesteko neurriak irmoki betetzeko deia. Prebentziorako, lehenik eta behin, higie-neurriak bete behar dira: bereziki, eskuak ondo garbitzea, ezinbestekoa baita hori gaixotasuna ondokoari ez kutsatzeko. Hauexek hartu beharreko neurri orokorrak:

- Eskuak maiz garbitu, ura eta xaboa edo desinfektatzeko gela erabiliz.
- Eztula edota doministikua egitean, ukondoaren barruko aldearekin estali behar da ahoa.
- Begiak, sudurra eta ahoa eskuarekin ez ukitu, norbera kutsatzea saihesteko.
- Sukarra edo arnasa hartzeko arazoak dituenak osasun arreta eskatu, betiere zuhurtziaz. Larrialdi kasuren bat ez bada behintzat, ez da 112 telefono zenbakira deitu behar. Koronabirusari lotu-

tako informaziorako: 900 20 30 50 zenbakia sortu dute.

- Ingurukoekin, gutxieneko metro bateko distantzia errespetatu behar da.
- Premiazkoa ez bada behintzat, ez da kalera atera behar.
- Sintomak arinak diren kasuetan etxean geratzea aholkatzen da, arreta telefonora deituz jarraibideen berri jasotzeko. Adineko eta gaixo kronikoek ere etxean egon behar dute.

Naturaltasunez erantzun

Kutsadura kasuak saihestu eta osasunari lehentasun osoa emateko, norberak bere etxean, berrogeialdia egin behar du. Ardura denona baita, eta denon esku baitago koronabirusari aurre egitea. Norberaren osasuna zaindu behar da, beraz, gizartea babesteko: batez ere beste gaixotasunen bat duten

pertsonak edota adineko pertsonak babesteko, hain zuzen, horiexek baitira arrisku talde nagusiak.

Adituek adierazi dutenez, bertan dago jada birusa eta geratzeko etorri da. Birusa eta egoera naturaltasunez hartzeko gomendioa luzatu dute, aurrera begira ere egongo direlako antzeko birus gehiagoko. Krisi hau, etorkizunean etorriko diren birusei erantzuteko neurri gisa hartu nahi dute eta, oraindik topatu ez badute ere, txertoa topatzeko lanean ari dira adituak buru-belarri.

Ikastetxeekin batera, beste hainbat lanategi eta enpresa itxi dute dagoeneko eta ez, ezin da etxetik atera; erosketetara, botikara edo larrialdi kasurik sortu ezean behintzat. Honek guztiak izango du eraginik, eragin ekonomiko handirik, baina osasunari eman nahi zaio lehentasuna, erabateko lehentasuna.

Irudimenari tartea

Batera eta bestera ibiltzen ohituta, egungo gizartean ez da erraza bat-batean 24 orduz etxean egoten asmatzea. Jarraian positiboari eustearen garrantzia azpimarratu dute psikologoek, egoerari buelta emateko hartu beharreko ezinbesteko neurria delako.

Egoera normaltasunez hartzeko deia luzatu dute. Elikagaiak eta oinarriko beharretarako lehengaiak bermatuta daudenez, erosketa masiborik egin gabe. Lasaitasunez hartu behar da egonaldia, baina, era berean, aktibo mantentzea gomendatu dute, buruan beti helburuak eta ideia berriak edukiz. Irudimenari tartea eskaini behar zaio: ingurukoekin harremanak, etxeko-lanak, telelana, sukaldaritza, eskulana, irakurketa, kultur ekitaldiak, zinema edota beste hainbat aukerari tartea eskainiz.

Tunelaren atzeko argia ikusteko, guztiona da ahalik eta ondoen jokatzeko ardura. Bitartean, zaindu eta aurrera!

Egoera berrira egokituko da Aiurri hamaboskaria

Eskualdeko hainbat saltokitan eskuratu beharko du aldizkaria Aiurriko harpidedunak

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

Koronabirusaren hedapena eteteko neurri gisa, Aiurri hamaboskariaren 557 zenbakia harpidedunen etxeetara ez banatzea erabaki da; zuzeneko banaketa bertan behera utziz.

Ezohiko neurria da, osasun alerta egoerak baldintzatua. Aiurrik eskaintzen duen informazio zerbitzua, internet bidezkoa nahiz paperekoa, lantaldearen laneko baldintzekin ere uztartu behar baita, banatzaileen kasuan bereziki. Datozen asteotan Aiurriko

langileek ere etxetik egingo dute lan, bulegotik beharrean, arriskua saihesteko.

Banaketa etxera zuzenean egin beharrean, ordean, herriko hainbat saltokitan hamaboskaria eskuratzeko aukera izango da: Ernaitza, Stop eta Delgado liburu-dendak (Andoain). Amasa kafetegia eta Basajaun liburu-denda (Amasa-Villabona). Alaiena -Eroski supermerkatua (Zizurkil). Mattin liburu-denda (Asteasu).

Aipatu aldizkaria saltokietan jaso ezin duenak, bulegoan eskuratzeko aukera izango du



Aiurri aldizkariaren 557 zenbakiaren azala. AIURRI

egoera normaltzen denean. Era berean, hurrengo bi hamaboskariak ere ez dira egutegian zehaztutako datetan argitaratuko. Aste Santua igaro ondorenean argitaratzea aurreikus-

ten da, behin egoera egonkortzen denean.

Ekimen berriak, egoera berrirako Ohi denez, aldizkariaren pdf-a www.aiurri.eus gunearen bidez eskuratzeko aukera eskainiko da, baina modu irekian.

Bien bitartean, eskualdeko albisteak www.aiurri.eus gunean nahiz sare sozialetan landuko dira. Egoera berezi honen aurrean, eguneroko gertakariekin batera, eduki berriekin elikaturiko da webgunea. Besteak beste, Garazi Kamio eta Ane Jalon idazleek post bana idatziko dute egunero, Garbiñe Ubedak ilustrazioa egingo du edo Maddi Trutxuelo eta Diego Barrasa argazkilarien argazkiak tarte-katuko dira.

Era berean, bertso-kate kolektiboa ere jarri da abian. Andoingo Punttuka bertso eskolako Unai Ormaetxeak ekin dio eta nahi duenak jarraituko dio kateari: #BertsoVid19. Ekimen berriak, egoera berrirako.

KORONABIRUSA

ZER EGIN DEZAKET NIRE BURUA BABESTEKO?

- 1 ESKUAK SARRITAN GARBITU.**
- 2 EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEAN, ESTALI AHOA ETA SUDURRA UKONDOAREKIN EDO ZAPI BATEKIN.**
BOTA ZAPIA BEREHALA ETA GARBITU ESKUAK ALKOHOL-OINARRIA DUEN ESKUETAKO DESINFECTATZAILE BATEKIN EDO UR ETA XABOIAREKIN.
- 3 MANTENDU METRO BATEKO TARTEA, GUTXIENEZ, EZTUL EDO DOMINISTIKU EGITEN DUTEN EDO SUKARRA DUTEN PERTSONENGANDIK.**
- 4 EZ UKITU BEGIAK, SUDURRA ETA AHOA.**
- 5 ETXEAN ETA LEKU PUBLIKOETAN ESKUEKIN UKITZEN DIREN GAINAZALEN GARBIKETA AREAGOTU.**

OSAKIDETZA ETA OSASUN SAILAREN WEB ORRIETAN



Eskua eskuaren gainean

Esku zanpatzailea.
Esku menperatzailea.
Boterearen eskua.
Emakumearen eskua.
Gizonaren eskua.
Azpian bata, gainean bestea.
Askatasun eza.
Libre izateko aldarria.

Argazkia: Natalia Artetxe.

Datu teknikoak:
Canon EOS 750D
f 2.2 1/100





Martxoaren 6an, emakume ugari gerturatu zen Adunako liburutegira, Photocallean parte hartzera. AIURRI

M8aren harira, ekimen ugari Beterri-Aiztondon

Esqualdeko herrietan, emakumeak eta kolore morea izan ziren protagonista martxoaren 8ko asteburuan

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, ekitaldi ugari: Pausoz pauso kalejiraren baitan, herriko zortzi emakume omendu zituzten Andoainen. Iraganeko Andoaingo emakumeen argazki erakusketa ere zabaldu zuten Basteron. Aiztondo bailaran ere hamaika

ekintza: martxa morea, giza katea edota mosaikoa eta musika emanaldia. Argazki eta bideoak: www.aiurri.eus

Orain, ordea, hilabete osorako antolatutako egitarau zabala bertan behera uztea erabaki dute koronabirusagatik. Hitzorduak aurrerago antolatzen ahaleginduko dira.



Aterki moreekin mosaikoa osatu zuten Villabonako Errebote plazan. AIURRI



Andoaingo Pausoz Pauso ekimenen omendutako emakumeak. AIURRI



Zizurkil eta Villabona lotzen dituzten bi zubietan egin zuten aldarria. AIURRI



Denetarikokantuak eskaini zituen Dudik Pe musika taldeak, Berdura plazan. AIURRI



Bertso-merienda egun zuten Adunan, martxoaren 6an. AIURRI

Aiztondoko emakumeen balorazioa

Aiztondoko mugimendu feministak balorazio positiboa egin du orain arte martxoan zehar egin diren ekintzen inguruan. Pauso bat haratago eman dugula deritzogu, izan ere, lehen genuen gutxieneko kontaktua handitu dugu, martxo osorako egitaraua egitera iritsi arte. Hala ere, beste hamaika pauso egiteke ditugu eta saretzen jarraitu beharra dago. Aiztondotik haratago, aurtengoan Tolosaldeko saretzean pauso bat gehiago eman da. Herri desberdinetako mugimendu feministak batu eta, esaterako, martxa antolatu dugu, zeina harremanak sustatzeko oso baliagarri izan den. Honek, batu eta antolatzen jarraitzeko indar handia eman digu. Honekin batera, emakumeok* bakarrik parte hartzeko eginiko giza katea azpimarratu nahi genuke. Gure helburua Villabona eta Zizurkilgo zubiak elkartzea izan da eta lortu dugula esan dezakegu. Bertan, emakumeok* batzea, antolatzea, ahalduntzea, boteretzea aldarrikatu nahi izan dugu, baita lortu ere! Zorionak Aiztondoko emakumeoi*!



Iraganeko Andoaingo emakume langileen argazkiak ikusgai. AIURRI



**Baserriko haragia
Urdaitegi berezia**

Bulandegi bidea, 1. Zizurkil
943 69 62 42



**JOSEBA
altzariak**

Kaletxiki, 10 - ANDOAIN • 943 590 761 • mueblesjoseba@hotmail.com

- Somier elektrikoak
- Koltxoi biskoelastikoak
- Altzari osagarriak



Jose Remacha andoaindar idazlea, bere azken nobela eskuetan hartuta. AIURRI

"Musak agintzen didanean ekiten diot idazketari"

JOSE REMACHA ONDARRETA IKASTETXEKO IRAKASLE OHIA ETA IDAZLEA

Lau nobela idatzi ditu Jose Remacha andoaindarrak. Zalaparta mediatiko askorik sortu gabe eta autoedizioaren bidetik argitaratu ditu laurak ere

XABIER LASA ANDOAIN

Bere-berea den estiloan, egunerokotasunean bizi diren pertsonaien kontatzailea da Remacha.

Lau eleberriak autoeditatuta kaleratu dituzu. Nahita hartutako erabakia izan al da, ala ez duzu editorerik topatu?

Distantzia luzeko lasterketa baten antzekoa izaten da lanak argitaratzeko kontu hori. Lehenengo pausoa, lanak literatur lehiaketetara bidaltzea da; horrela, nire lehen nobela, 'Zarraberria', 1977ko Irun Hiriko finalisten artean geratu zen. Antzera gertatu zitzaidan 'Cuesta abajo' nobelarekin, Oviedoko Emilio Alarcos Llorach sariko finalista geratu

zen, 2001ean. Beste sariketatik ez dut ez erantzunik jaso, ezta bidalitako lanak jasotzeko aukerarik eduki ere.

Gauzak horrela, nire hurrengo saiakera, idazlanak editoreen eskuetan uztea izan zen. Horietako zenbaitek erantzun egin zidaten; esate baterako, Hiria argitaletxeko Luis Aranburuk edo Txertoako Luis Jimenez de Aberasturik. Bilera banatara deitu, eta nire lanen

bertuteak eta akatsak idatzita erakutsi zizkidaten bertan, baina gero ez ziren argitaratzera arriskatu, komertzialak ez zirela edo nire izenak amu komertzialik ez zeukala argudiatuta. Azkenean, etsia hartu, eta autoedizioaren bideari ekin nion; Delta inpresio digitaleko enpresara jo nuen, eta era horretan atera ahal izan ditut lau liburak.

**ETSITA,
AUTOEDIZIOAREN
BIDEARI EGIN
NION**

**EZIN DIOT IHES
EGIN IDAZTEKO
BIRUSAREN
GAITZARI**

Lehen hirurak bata bestearen ondoren heldu ziren. Azkena kaleratzeko, ordea, 13 urte igaro dira...

Lau nobelen idazketak eta argitarpenak ez dira orden berean etorri. 'Zarraberria' 1975ean amaitu nuen. Ondoren, lo dagoen eta inoiz argia ikusiko ez duen bigarren bat heldu zen. 'Cuesta abajo' eleberriaren hiru argitalpen egin nituen. 'La maldición de Santasarna' 2005ekoa da, eta 'Diario de guerra a dos manos' iaz idatzi eta argitaratu nuen. Baina egia da diozuna: kosta egin zait azken lan hori argitaratzea. Izan ere, musak "ona da ideia hori eta ekin lanari!" agintzen didanean jartzen naiz abian.

Noiz hasi zinen idazten? Irakasle izan aurretik edota ondoren?

Ondarretan irakasle nintzen bitartean EUTGn Filologia Hispanica ikasi nuen; han Jesus Maria Lasagabasterrek literatura, estilistika edota literatur kritika irakatsi zizkigun. Literatur sormenaren mekanikan murgildu gintuen ikasleak, eta asko irakurri behar izan genuen, eskuetan arkatza eta papera geneuzkala. Idazketaren birusa txertatu zigun gizonak! Eta geroztik ezin izan dut ihes egin gaitz

horretatik; zerbait idazteko kapaz nintzela sinestarazi nion nire buruari, eta halaxe ekin nion.

'Diario de guerra a dos manos' nobelan, 36ko Gerran elkar eza-gutzen duten Fernando eta Maruja dira protagonista...

Huescan egiten dute topo, non fronteaz luzez egon zen egonkortuta. Hor hasten da biek elkarrekin idazten duten egunerokoa. Hasiera batean, gatazka belikoa soldadu basapiztiaren eta emakume sentiberaren ikuspegitik kontatzea pentsatu nuen, baina ohartu nintzen hortik jota egunerokoak ez zuela gehiegi emango... Beraz, gerra osteraino luzatu nuen kontakizuna, eta halaber, Fernando astakirtenak iraun-bizitzeko eta iraganeko maitasunak berreskuratzeko egin behar dituen ibilerak deskribatu nituen. Irakurleek egin dizkidaten komentarioen arabera, nobelaren bigarren eta hirugarren zatiak dira gogokoena; alegia, baserri giroko egoera originalak, purrustada erotikoak... Egia esan, nahikoa betekada badaukagu Yankilandiati datozkigun tankeez eta alambre-hesiez jositako istorioekin, eta horren kontrako erreakziotik badauka zeozer nobelak.

Nola deskribatuko zenituzke bi pertsonaia nagusi horiek?

Emakume kuttuna da Maruja, ideiak oso argi dauzkana, eta ez dena itzuli-mitzulika ibiltzen. Zer esan Fernandori buruz, baina? Nobeletako protagonistak hizpide hartuta, George Lucasek "Nobelaren teoria" liburuan esaten duen bezala, "heroi problematikoa" da. Heroia da ekintza martxan jartzen duelako, eta problematikoa da bere gizarte taldeko elementu batzuekin iden-



Remacharen laugarren nobela, 'Diario de guerra a dos manos'. AIURRI.

tifikatzen delako, baina beste batzuekin ez dagoelako ados. Lucasek zehazten duen bezala, ez da bertute atenatarrak biltzen dituen epopeia-ko Ulises bat, ezta ere tragediako pertsonaia (esate baterako, zeinak injustutzat jotzen zituelako Tebaseko legeak ez errespetatzeagatik urkatzen duten Antígona). Gainera, kontuan hartuta Fernando gertakizunek modu sentigaitzean eramaten dutela arrastaka, esan daiteke pertsonaia existentzialista ere badela. Camus-en nobeletan agertzen den pertsonaia: Meursault 'L'étranger' nobelan, edota Rieux 'La peste'n. Hots, heroi problematikoa existentzialista.

**DI-DA BATEAN
IRAKURRI DUTELA
ADIERAZI DIDATE
GEHIENAK**

Zer nolako kritikak egin dizkizute irakurleek?

Di-da batean irakurri dutela adierazi didate gehienek. Izan dira akats tipografiko, sintaktiko edo ortografikoak aipatu dizkidatenak edota bertan agertzen diren gaztelaniazko zenbait hitzen esanahiaz galdetza etorri zaizkidanak. Baina ia denek, liburuan aipatzen den eguneroko hori fikziozkoa den ala ez galdetu didate. Bada, esan behar dut benetakoa dela, nahiz eta gero pertsonaia, lekuak eta datak "literaturizatu" agertu.

Estilo berezia daukazu, elkarriketak osatzeko orduan batik bat...

Ez, zuzeneko estilo askea darabilt, kontatzailearen eta

Lau nobelaren egile da Remacha

- Cuesta abajo (2004)
- La maldición de Santasarna (2005)
- Zarraberria (2006)
- Diario de guerra a dos manos (2019)

Salgai:
Andoaingo
Delgado liburu-
dendan.

pertsonaien ahotsak paragrafo berean agertzen dituen. Liburuan ez dituzu topatuko "Halakoak hau esan zuen" eta antzeko artifizioak. Kontatzaile hirugarren pertsona mintzatzen da, eta ondoren, koma batek pertsonaia bati bidea ematen dio, honek lehenengo pertsona mintza edo pentsa dezan. Teknika horretara ohi-tuta ez dagoen irakurlea hasieran harritu egin daiteke, baina berehala ohartuko da norena den ahots hori, ahozko tenpoari eta pertsona gramatikalarri esker. Nahasgarria gerta daitekeela teknika hori? Agian bai, baina arintasunean irabazten du kontakizunak, eta batik bat, ahalbidetzen du aldi berean ikus ditzazun kontatzailearen eta une horretan ekintzaren erdian diren pertsonaien ikuspuntuak.

Bat batean ateratzen zait idazkera hori, baina uler dezaket irakurleen batek liburu alboratzea, irakurketa konplexua dela irudita.

BENITO
HARATEGIA - URDAITEGIA
Arroa Kalea, 4
943 691 350
VILLABONA

ARANBURU
Artekaritza | Aseguruak | Aholkularitza
Kaleberria, 6 behe - Andoain
artekaritza@agencia.axa-seguros.es
943 590 814 | Faxa: 943 592 403



Amasa-Villabonako Aizkardi mendi taldeko kideak Etenetan, 1996ko irudian. AIURRI

Atzera begira, argazkien bitartez

1994 eta 1997 urteen arteko 2.000 argazki bistaratu ditu Aiurri aldizkariak, TOKIKOM tokiko hedabideen federakuntzaren eta Euskal Wikilarien kultur elkartearen ekimenaren bidez. Argazkietara sarbidea Aiurri.eus webgunetik egin daiteke, Wikimedia atalean klik eginez

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Otsailaz geroztik, Aiurriko erredakzio taldeak, 90eko hamarkadan Beterri-Aiztondon ateratako ia bi mila argazki ikusgai jarri ditu internet sarean. Lehen hamaboskariei loturiko material grafikoa da, eta aldizkari horiek PDF formatuan ere ikusgai daude sare berean. "Toki komunikabideek altxor handi bat dute gordeta", adierazi zuen EWKE Euskal Wikilarien kultur elkarte kide Galder Gonzalezek An-

doingo aurkezpen ekitaldian. Wikipedia jakintza librea sustatzeko ekimena da, eta euskarazko komunitatean EWKE elkarte erreferentzia nagusia da. Euren eguneroko jardunean hutsunea nabaritzen zuten:

**IRAGAN MENDEKO
ONDAREA DA,
ESKUALDEARI
LOTUTA DAGOENA**

"Bada zulo beltz bat: 1980ko hamarkadatik aurrera ohikoa izan zen kamera bat izatea etxean edo lantokian, argazkiak egin ziren baina ez dira digitalizatu; eta digitalizatu diren kasuetan copyrightdun argaz-

**ARGAZKIAK
IKUSGAI DAUDE
AIURRI.EUS
WEBGUNEAN**

kiak dira oraindik, ezin direnak Wikipedia bezalako proiektu askeetan erabili". TOKIKOM eta EWKE elkartearen akordioari esker, proba pilotuan hartu du parte Aiurrik. Larra-mendi Bazkunak ondo gordeta zituen argazkiak digitalizatu dira, egun Aiurriko argazki-funts digitalean bereizmen maila handian gordeta daude. Era berean, argazki horiek internet sarean daude ikusgai.

"Esperientzia ederra izan da, eta errepikatzea espero dugu. Balio digu artikulua asko hobetzeko", erantsi zuen Galder Gonzalezek. Besteak beste, intsumisioari buruzko edota ijitoen joan-etorriari buruzko Wikipediako artikulak ilustratzeko Aiurriko argazki historikoak oso baliagarriak zaizkie. Baita Martin Ugaldere argazkiak ere. Orain arte, hari buruzko argazkiak eskuratzea zaila zelako.

Kultur, gizarte eta politika mailako eragile ezagun askoren argazkiak ikus daitezke, eskualdetik kanpokoen begietara.

Eskualdeko herritarrentzat, aldiz, norberaren bizitzari lotutako argazki-album modukoa da. Bertan agertzen direlako denboraren joan-etorriarekin aldatuz joan diren paisaiak, iraganean nabarmendu ziren pertsonak eta gertaerak, eta batez ere, eskualdean bizi diren pertsona asko iragane-ko argazki horietako protagonista direlako. Lehen egunetan, argazki-bilduma hark eragin handia izan zuen Andoainen. Hurrengo egunetan, Aiztondo bailaran. Argazkiez goatzeko aukera dago, noiznahi, Aiurri.eus webgunean sartuz eta Wikimedia atalean klik eginez gero. Herriz herri sailkatuta daude, gainera.

Osasuna
eta estetika
gida

BELKOAIN
Fisioterapia zerbitzua
• ECO • EPIE
• Eskuzko Skenaje Linfatikoa • Presoterapia
• Gimnasia Hipopresiboa
• Bizker Eskola
• Pulmoneroinmunologia klinikoa
Eduki ikus, 6. eta, 8. Andoain: 943 591 202

ARJINDU
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
943 69 31 13
Errota, 7-bethea 20150 Villabona

Lur
Fisioterapia
Pilates Zentroa
Ikar Igeraregi Izarribar
Donostia, 201. 2017 Andoain
Tel.: 943 590 801 - 943 763 949



1997an, Aduna herria UEMako kide egin zen egunean, herritar guztiak deitu zituzten plazara herri-argazkia ateratzeko. AIURRI



Asteasuko Julian Lizardi baserri babestuaren inaugurazioa, 1995ean. AIURRI



Larraulgo haurrak eskolara eramateko autobus zerbitzua abiarazi zuten. AIURRI



1996ko martxoan, Garetza baserriko Anttonio Kortajarena izan zen III. Txapela eguneko omendua. Inguruan ditu Joxin Azkue, Inaxio Fernandez, Bernardo Arregi, Xabier Pellejero, Iñaki Urkola, Aitor Sarasua eta Iñaki San Sebastian. AIURRI



1994an, Villabona eta Zizurkilgo Udal ordezkariak, zubi berriaren aldeko ekitaldian. AIURRI



aldama_tapia
aholkularitza

Txitibar plaza, 3-behea.
Andoain
Tel.: 943 594 476_943 300 167



PITXIEI EUSTEN DIEN ESKUA

Kartoizko esku gogor batek zernahitarako balio dezake.
Hemen, pitxiak zintzilikatzeko toki bihurtu dugu, etxe guztietan badelako gorde beharreko
eraztunik, belarritako solterik edo eskumuturrekorik.

MATERIALA:

- Zereal-kaxa bat
edo kartoi zuria

- Arkatza
- Goma
- Errotulagailuak


- Guraizea
- Kola
- Edalontzi bat



1. Hartu zereal kaxa huts bat.
2. Kaxaren alderik handienak
moztu. 3. Inprimatu gabeko
aldeak erabiliko ditugu. Jar
itzazu bata bestearen azpian,
alde inprimatuak elkarren
kontra. Kolatu. 4. Kola ongi
lehortutakoan, zure eskua gainean
ipini eta ertza marraztu. 5.
Eskua ebaki. Bi aldeetatik zuri
agertu behar du. 6. Bi aldeetatik
margotu. 7. Eskuaren euskarri
gisa, edalontzi estu bat beharko
dugu.




8. Atearen markoan
ere jar dezakezu,
txintxetaz.



ERREZETA etxean egin, argazkia atera eta bidali Aiurrira: diseinua@aiurri.eus

Egilea: Garbiñe Ubeda

TXUPATXUSIK NAHI?



OSAGAIAK:





Gailetak - Philadelphia gazta - Urtzeko txokolatea
Kartoizko lastotxoak - Xehatzeko makina



1. Inork jaten ez dituen gaileta horiek hartu eta xehe-xehe egin. Gaileta apurren orde, arbendola xehatua ere erabil daiteke, baina azukrea eman beharko zaio, zaporea nabarmentzeko.



2. Philadelphia edo tankerako gazta nahasi. Koilarakada bat aski, pasta trinko samarra gelditu behar baitzaigu. Ondo landu. **3.** Pilotak egin, eskuz. Handirik ez egin, makilak pisuari eutsi behar baitio. Txokolatea urtzeko, tableta erdi bat zatikatu, ur zorrotada bat bota eta mikrouhinetan berotu. Ongi nahasi. **4.** Kartoizko lastotxoak erdibitu. **5-6.** Lastoaren punta txokolatean busti, eta ondoren pilotan sartu. **7.** Pilota txokolatez bildu eta hozten utzi.



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ZERBITZUAK

ZOZKETA

M. Rosario Telletxea, saskiaren irabazlea

ERREDAKZIOA ANDOAIN

115 aiurizalek baino gehiagok hartu du parte Errigorako saskiaren zozketan. Maria Rosario Telletxea Intxausti andoaindarra izan da irabazlea. Zorionak eta on egin!

Zozketa berria

Errigora ekimenak eskainitako saskia zozketatuko dugu oraingoan ere.

Hauexek izena emateko bidet: Whatsappez 619 163 537; emailaz diseinua@aiurri.eus; telefonoz 943 300 732; Andoaingo bulegora etorrita



Errigora ekimenaren saskia. AIURRI

(Arantzibia plaza, 4-5) edota aiurri.eus webgunean. "Errigora" hitz-gakoa zehaztu behar da. Parte hartzeko azken eguna: martxoak 27.

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantse-seko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827.**

SALGAI

Erretiroagatik, **aluminiozko aroztegi-ko lokala eta ma-**

kineria salgai edo alokagai. **651 707 43.**

Etxebizitza argitsu salgai lurako plazan, 3 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Egoera onean eta igogailuarekin. Zatoz ikustera. **666 62 30 79.**

Ohe artikulatua motorrarekin, bis-koelastikako koltxo eta guzti, salgai.

190 x 90. Berri-berria. 700 euro: **610 953 258.**

Knaus autokarabana salgai. 2005 urtekoa, 50.000 km. **686 07 70 87**

Konketa duen **gurpildun aulkia** eta taka-taka salgai. Oso gutxi erabiliak eta egoera ezin hobean. **686 383 903.**

MERKATU

TXIKIAN

PARTE

HARTZEKO

Emailaz: **diseinua@aiurri.eus**

Whatsappez: **619 163 537**

Tel.: **943 300 732**

Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behe. Andoain**

HERIOTZAK

- **Antonio Arribillaga Olasagasti.** Martxoaren 3an, Andoainen.
- **Eugenio Caceres Murillo.** Martxoaren 3an, Andoainen.
- **Candido Marquez Barrientos.** Martxoaren 5ean, Andoainen.
- **Maria Isabel Garcia Etxarren.** Martxoaren 8an, Andoainen.
- **Jose Luis San Sebastian Oiarzabal.** Martxoaren 8an, Andoainen.
- **Maria Pilar Diaz Exposito.** Martxoaren 9an, Andoainen.
- **Margarita Martinez Amez.** Martxoaren 4an, Zizurkilen.

Amonarriz
Iturgintza, S.L.
Iturgintza, gasa, herogailuak, petroleo-gaien hornidura
Ugalde etxea, 6. eskuina - Larrauri - 943 693 963 - 607 186 877
www.fontaneriasamonarriz.com

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Julen Gurrutxaga
Aizpurua
8 urte martxoaren 15ean! Erreala gora ta gora beti!! Maialen, Iker, Ibai, Imanol, Maitane eta Ander.



ANDOAIN
Ibai Gurrutxaga
Amondarain
Martxoaren 8an 19 urte bete zituen! Ikaslearen bizitza hoberena da!!! Biba zu!



VILLABONA
Zorionak
Idoia Usabiaga 4 urte beteko ditu martxoaren 26an. Zorionak gure izarri. Ondo ospatu zure eguna. Muxuak, etxeok.



ANDOAIN
Iker Miguez
Belon
Ikerrek 8 urte beteko ditu martxoaren 26an. Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat, etxeok.



ZIZURKIL
Ane Zugasti
Zorionak Ane! Martxoaren 29an 9 urte beteko dituzu. Jarraitu beti bezain jator! Muxuak etxeko guztien partetik.



ANDOAIN
Miren Ibañez
Donoso
Martxoaren 12an 27 urte bete zituen. Zorionak eta muxu handiak etxeko partetik.

Urte askotarako!
Zorion izateko lagunak eta sentimendurik gabeko lagunak eta Aiurri hainbatokorik. Oso erraza da, eta dohainik!
• **www.aiurri.eus** Zorion agurak atalean.
• **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
• **diseinua@aiurri.eus**
• **Arantzibia 4-5, behe** Andoain
• **Telefonoa:** 943 300 732.

Deialdi ezberdinak martxan Andoainen

HISTORIARI BURUZKO IKERKETARAKO LAGUNTZAK

Historia alorreko ikerketa eta Andoaingo herriaren historiari buruzko azterketak.

- Azken eguna: Martxoak 31.
- Diru-laguntza: 2.500 euro.

Info gehiago: **www.aiurri.eus webgunea**

SANTAKRUTZAK 2020 KARTEL LEHIAKETA

- Ezinbestekoa "Santa Krutz jaiak 20" esaldia azaltzea.
- Ernaitza liburu-denda. Zumea kalea. Martxoak 23. 150 euroko sari bakarra.

Koronabirusa

**KULTUR EGITARAUA
BERTAN BEHERA
GELDITU DA,
BEHIN-BEHINEAN,
PREBENTZIO
NEURRI GISA**



Ane Etxebeste Ormaki urdaitegiko txistorrak erakusten, elkarriketaren ostean. AIURRI

"Lehengai natural eta onekin egiten dugu lan"

ANE ETXEBESTE ORMAKI, TXERRIKIEN EKOIZLEA

OLATZ LASA ANDOAIN

Familia enpresa da Ormaki, 1987an sortutakoa. Geroztik nork darama urdaitegiaren martxa?

Ni gutxi egoten naiz hemen. Bi anaiak daude orain, Aitor eta Asier. Beren aita hasi zen eta orain beraiek geratzen dira. Bigarren belaunaldia dira.

Geroztik, nola aldatu da lan egi-teko modua?

Asko aldatu da. Obraegin behar izan zen osasun sailak aginduta guztia egunean jartzeko. Aurretik ezagutu nuen eta oso ezberdina zen. Hemen ateak irekita egiten zen lan, katuak ere sartzen ziren. Orain oso ezberdina da, noski.

Bezeroen ohiturak aldatu al dira?

Ez pentsa. Harategi txikiak dira gure berezoak eta ez dira horrenbeste aldatu.

Gure lana egin ahal izateko, jendeak denda txikietan erosten jarrai dezan beharrezkoa dugu. Azkenean, denda txikietako banatzaileak gara, eta egun, egitura handietara jotzen dute erosleek batik bat. Horrek guri ere kalte egiten digu.

Txerriekien ekoizpenean oinarritzen zarete. Zuek hazten al dituzue txerriak?

Ez. Gure hornitzaileek guk aukeratutako haragia bidaltzen digute, guk nahi dugun moduan zatituta. Hornitzaile

garrantzituena Kataluniakoa da.

Zein da zuen produktu izarra?

Txistorra. Urte osoan saltzen da, ez bakarrik San Tomas egunean. Askok, eta baita nik ere, ia-ia San Tomas egunean bakarrik jaten dugu txistorra, baina beste askok urte osoan zehar jaten du.

Guk urte osoan egiten dugu txistorra. Dudarik gabe, egun berezi horietan gehiago saltzen da txistorra.

Elaboratutako jakiak ere saltzen dituzue, esaterako, odolkiak.

Bai, odolkia asko saltzen dugu, baita beste produktu asko ere, hala nola txorizoak, solomoa, saltxitxak, mondejuak... Jendearen eskaerak betetzen saiatzen gara.

"GIPUZKOA OSOKO HARATEGIETARA EGITEN DUGU BANAKETA"

Zein harategitan eros daitezke zuen produktuak?

Gipuzkoa osoko harategietara egiten dugu banaketa. Hiru banatzaile ditugu. Autosalmenta egiten dugu, hau da, harakinarengana joaten gara eta zer behar duen galdetzen diogu. Batek hiru txistorra eskatzen ditu eta besteak bost kilo. Edozein formatutan saltzen dugu.

Salmenta zuzena eskaintzen al duzue?

Ez. San Tomas egunaren bueltan beti etortzen da baten bat, baina ez da ohikoena. Denda txikietara zuzentzen gara.

Bestalde, Bartzelonan eta Madrilan ere baditugu bezero txiki batzuk, eta haiei garraio hotzean bidaltzen dizkiegu beraien eskariak.

Webgunean azpimarratzen duzue lehengai naturalak erabiltzen dituzuela. Hori al da zuen indarra?

Lehengai naturalak lortzeko bidea zailtzen ari bada ere, haiekin egiten dugulan. Lehengai naturalak, onak. Eta ez bakarrik haragia, piper hautsa eta gainerako lehengaiak ere bai. Ondoren, kalera joan eta prezioetan ezberdintasun handia dago, eta horren atzean dagoen arrazoia lehengaiak dira. Lehengai onak mantentzen badituzu, prezioa igo egiten da.

Gure produktuen berri jakin nahi duenak www.ormaki.eus webgunean aurkituko ditu. Bertan ageri da gurekin harremanetan jartzeko bidea ere.

"LEHENGAI NATURALAK LORTZEKO BIDEA ZAILTZEN DOA"



Txerriekien banatzaile eta ekoizlea

Enpresen zentrua. Ama Kandida, z/g. 307. moduloa ANDOAIN. 943 592 923
www.ormaki.net

Ttap aldizkari digitalaren edizio berria

Ttap astekari digitala edukiz eta formaz berrituta argitaratuko da martxoaren 20az geroztik. Zero zenbakia kaleratu zenetik 20 hilabetera, aldizkariaren lantaldeak haren ibilbidearen inguruko gogoeta sakona egin eta hainbat aldaketa egin dizkio aldizkariari, “etengabe hobetzen jarraitzeko”

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

App bidez irakur, ikus edo entzun daitekeen aldizkari digitala da Ttap. Urrutira joan gabe, iazko ekainean Rikardo Arregi Kazetaritza Saria irabazi zuen. Egitasmoa bideratuta, diseinua berritzeari ekin dio lantaldeak. Martxoaren 20an kaleratuko du Ttap-ek edizio berritua.

Itxuran eta edukietan aldaketak egin arren, oinarrizko irizpideak betikoak izango dira:

- Doako aldizkari digitala.
- Kontsumo arin eta urbanoa.
- Irakurri ez ezik, ikusi, ukitu eta entzun egin daitekeena.
- Euskara hutsez.
- Hainbat komunikabideren artean elkarlanean ekoitzia.

Ttap aldizkari digitala 2018ko uztaillean jaio zen, Anboto, Baleike, Euskalerrria Irratia, Goiena eta TOKIKOMen ekimenez, Bartzelonako Esguard aldizkariarekin elkarlanean. Astero-astero argitaratzen da, ostiraletan, eta dohainik.

Orain arte aldizkariak Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan zituen hiru edizioak bakar batean bilduko ditu Ttap-ek aurrerantzean. Edizio bateratuak atal eta kolaboratzaile berriak izango ditu, eta euskal lurralde guztietako gaiak landuko ditu. Monika Belastegi Ttap-eko zuzendariak dioenez, “lurraldekako planteamendua gainditu eta euskal herritar guztientzako interesgarria den produktua sortu nahi dugu, edizio ezberdinak deskargatzera behartzen ibili gabe”. Ttap-ekin kolaboratuko dute-



IOS eta Android gailuetarako egokitutako app-a da Ttap. AIURRI

nen artean daude: Izaro Andres, Anabel Arraiza, Aitzol Atutxa, Ion Celestino, Aingeru Epaltza, Angel Erro, June Fernandez, Ander Izagirre, Ane Labaka, Bea Sever, Arantza Urretabizkaia, Oier Zuñiga, Janire Azkueta, Jokin Ayerregaray, Naia Ibrain, Aitor Abaroa...

Diseinu berritua

Diseinuan eta maketazioan ere aldaketa nabarmenak dakartzat Ttap berrituak.

‘Gorabeherak’ saila

Berrikuntza eta esperimentazioarekin jarraituz, martxoaren 20ko edizio berriak aldizkarirako propio sortutako eduki berri bat estreinatuko du: ‘Gorabeherak’ ikus-entzunezko sail bat da, umorezko kapitulu laburrez osatua, Ttap-ek hamabostean behin eskainiko dituen. Belastegiren hitzetan: “‘Gorabeherak’-en planteamendua oso sinplea da: igogailu bat

izango dugu, hildakoak zerura ala infernura eramaten dituen. Igogailu horren arduraduna Ramon da, igogailuzaina, eta berak egoera xelebreak biziko ditu igogailuan gora ala behera eraman behar dituen eta denok eza-gutzen ditugun pertsonaiekin. Pertsonaia horien artean denetarik izango dugu. Gehienak euskaldunak izango dira, baina Euskal Herriatik kanpo-koak ere ez dira faltako”.

Ttap-en lantaldea oso ilusionatuta dago Gorabeherak proiektuarekin: “Mimo handiz egin dugu, eta uste dugu emaitza dibertigarria eta oso txukuna dela. Gogo handia dugu publikoari erakutsi eta iritziak jasotzeko, guri behintzat ederra iruditu zaigu eta”. Belastegik eskerrak eman dizkio proiektua posible egin dutenei: alde batetik Tabakalerako 2deo Laborategiari eta Bertako Igogailuak enpresari, egitasmoan sinistu eta babes ekonomikoa emateagatik. “Babes eske joan ginenean, ideia polit bat besterik ez genuen, eta uste dugu eskertu eta aitortzeko moduko dela gudan konfiantza osoa jarri eta ideia hutsa zena diruz laguntzeko apustua egin izana. Gorabeherak kajoi batean gordetako ideia polita litzateke 2deo eta Bertakoren babesik gabe”.

Bestalde, sorkuntza lana ere goraipatu du Belastegik: “luxua izan da Kepa Errasti eta Nerea Arriolaren erabateko inplikazioarekin kontatzea. Kepak berehala heldu zion zirriborratua genuen ideiare eta hartu duen forma zehatza ematen erabakigarria izan zen bere ekarpena. Atalen gidoiak eta zuzendaritza lana ere bereak dira, eta gure ustez behintzat, emaitza bikaina da. Nereak ere sekulako lana egin du, atal bakoitzean fisikoki ere guztiz ezberdina den pertsonaia antzetzuz. Emaitza, gure ustez behintzat, bikaina eta oso dibertigarria da, eta espero dugu publikoaren oso gustukoa izatea”.

'Beñat', Egunean behin lehiaketako lehen irabazlea

'Aiurri' taldeak 383 kide ditu, eta irabazlea 'Beñat' izan da. Bigarren sariaren irabazlea, berriz, 'Ugaitz' lehiakidea

ERREDAKZIOA ESKUALDEA

'Egunean Behin' APP bidezko lehiaketa aski ezaguna da euskaldunon artean, milaka lagunek parte hartzen baitu egunero. Codesyntax enpresak garatu zuen, eta jokatzeko eta taldeka lehiatzeko aukera ugari eskaintzen du. Denboraldiaren azken hiru astei begira, Aiurriko erre-dakzio taldeak "Aiurri" taldea sortu zuen. Eta arrakasta handia izan du, 383 lehiakideena batu baita bertara. Aiurriko taldean parte hartzea saria dakarrelako akaso?

Bi sari

Hiru astetan, aste bakoitzeko bina sari banatuko dira 'Aiurri' taldeko kideen artean. Martxoaren 8tik 15era bitarteko partaideen artean irabazlea 'Beñat' izan da, eta harentzat izango da saria. Gosari bikoitza jasoko du Andoaingo Arruti gozotegian, hori bai, koronabirusaren krisia igaro eta gero.

Bigarren saria ez dago lehia-ri zuzenean lotuta, parte-hartzeari baizik. Parte-hartzea saritzea bilatu du Aiurrik, eta hori dela eta beste gosari bikoitza zozkatu du. Eta nola

MARTXOAK 9-15		
1.	Beñat	540,33
2.	Txurdo	538,44
3.	Ane	526,45
4.	Pako	525,52
5.	Andriu	518,99

Azkar eta ondo erantzutea, horixe da lehiaketaren gakoa. AIURRI

egin den zozketa? Lehen aste honetan, haxe izan da irizpidea. Martxoaren 15a 2020. urteko 75. eguna zenez, aste horretan 75. postua eskuratu zuenak irabazi du saria.

'Ugaitz' i egokitu zaio, beraz, gosari bikoitza. Mila esker partaide guztiei. Eta, adi, sari berriak banatuko baitira denboraldia amaitzeko geratzen diren bi asteetan.



Galdera-erantzunen euskarazko jokoa

Egunean Behin partida, Astean Behin **SARIA!**









Osasun larrialdi
honen aurrean, zuri
informazioa helarazteko
lanean ari gara uneoro

